## USURBILGO UDALA

*Gaia: Usurbilgo Udal Baratzeen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamenduaren aldaketa behin betiko onartzea. HZ.17/2011-0138.*

Usurbilgo Udal Baratzeen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamenduaren hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, aldaketak barne onartutako Erregelamenduaren testu oso-osoa argitaratzen da.

Erabaki hori jakinarazten dizut aipatu erabakiak arduralaritza-bidek ahitzen dituela adieraziz eta erabaki horren aurka adierazpena egiten den hurrengo egunetik eta bi hilabeteko epean Euskal Herriko Auzitegi Gorenean arduralaritza-auzipideetatikako errekurtsoa jarri ahal izango duzu, horrek egoki deritzezun beste edozein errekurtso jartzeko aukera eragozten ez dizularik.

*Usurbilgo Udal Baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua.*

### I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Erregelamendu honen xedea udal baratzeen emakida eta erabilera arautuko dituzten xedapenak ezartzea da. Erabiltzaileek zein Usurbilgo Udalak bete egin beharko dituzte xedapen horiek.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Usurbilgo Udalaren jabetzako udal baratzen lursail orotan aplikatuko da honako erregelamendu hau.

*3. artikulua. Eskumenak eta zaintza.*

1. Erregelamendu honek eragindako udal jabetzako lursailen erabilera zuzenaren zeregin teknikoak, zaintzakoak eta zehatzaileak Usurbilgo Udalak egingo ditu.

2. Zeregin teknikoan sartzen dira baratzeak antolatzeko proiektuak egin eta/edo onartzea, eta baratzeen eta haiei lotutako azpiegituren kontserbazioa, konponketak eta mantentzelanak egitea.

3. Udal zerbitzu teknikoa, Udaltzaingoa, edo Udalak horretarako izendatutako edo jarritako beste edozein bitarteko arduratuko da araudia betearazteaz. Eta bere zeregin nagusia izango da partzelak eta horiei lotutako azpiegiturak ondo erabili eta aprobetxatzen diren ikuskatzea.

4. Egiten diren arau-hausteak salatu ahal izango dituzte zaintzaz arduratzen diren langileek, eta arau-hausleak eta arau-hausteari buruzko datuak adieraziko dituzte, baldin ezagunak badira.

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Aprobación definitiva de la modificaron del reglamento regulador de la concesión y uso de huertas municipales de Usurbil. HZ.17/2011-0138.*

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial de la modificación del Reglamento regulador de la concesión y uso de huertas municipales de Usurbil y al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento deviene en definitivo. Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art, 70-2.º de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto integro de dicho reglamento.

Lo que comunico para su conocimiento y efectos, indicándole que este acto agota la vía administrativa y contra el mismo podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al día en que se le notifique el acto, sin perjuicio de que pueda interponer cualquier otro que tenga por conveniente.

*Reglamento regulador de la concesión y uso de huertas municipales de Usurbil.*

### CAPITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º Objeto.*

El presente Reglamento tiene como objeto el establecimiento de las disposiciones que han de regir la concesión y el uso de las huertas municipales, y sus disposiciones obligan tanto a las personas usuarias como al Ayuntamiento de Usurbil.

*Artículo 2.º Ámbito de aplicación.*

El Reglamento se aplica a todos aquellos terrenos propiedad del Ayuntamiento de Usurbil, y que se destinen para su uso como huertas municipales.

*Artículo 3.º Competencias y vigilancia.*

1. Corresponde al Ayuntamiento de Usurbil el ejercicio de las funciones técnica, de vigilancia y sancionadora del correcto uso de los terrenos de propiedad municipal afectados por el presente Reglamento.

2. La función técnica incluirá la elaboración y/o aprobación de proyectos de ordenación de huertas, así como de la conservación, reparación y mantenimiento de éstas y de las infraestructuras ligadas a las mismas.

3. La vigilancia del cumplimiento de la normativa se efectuará por el servicio técnico municipal, la policía municipal, o por cualquier otro medio que el Ayuntamiento designe o establezca al efecto, y su principal cometido será la inspección del correcto uso y aprovechamiento de las parcelas y las infraestructuras ligadas a ellas.

4. El personal encargado de la vigilancia podrá formular denuncias de cuantas infracciones se cometan, identificando a los infractores si fueren conocidos y los datos relativos a la infracción.

II KAPITULUA

UDAL BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERARAKO BAIMENEN ARAUDIA.

*4. artikulua. Baratzeen erabilera ematea.*

1. Usurbilgo udalerrian erroldatutako pertsona orok du erregelamendu honetan adierazitako udal baratzeen erabiltzaile izateko eskubidea.

2. Usurbilgo udalerrian lurren bat jabetzan edo errentan daukanak ezingo du udal baratzerik emakidan hartu.

3. Emakidadun bakoitzak gehienez baratze baten emakida eduki ahal izango du.

4. Bizikidetza unitate bereko bi kide edo gehiago titulartasun bakartzat hartuko dira.

5. Dena den, baratzeen erabilera prekarioan emango da.

Horren ondorioz, Udalak, edozein unetan, baliogabetu dezake emandako erabilera baimena. Hori gertatuz gero, titulartasuna duenak berehala utziko dio emandako lurzorua erabiltzeari eta bertako jarduerak egiteari. Horretarako nahikoa izango da Administrazioak eskaera egitea, eta erabiltzaileak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik edo inongo kontzepturengatik diru-ordainik jasotzeko.

Hori dela eta, emakidaren epea amaitzean edo emakida aurretiaz baliogabetzean, baldin eta halakorik gertatzen bada, lagatako baratzea Udalari itzuli beharko dio erabiltzaileak erabilera-baldintza egokietan, erabat hustuta eta inongo oztoporik jarri gabe. Usurbilgo Udalak erabateko ahalmena izango du laga diren baratzeetan eratutako erabilera- eskubideak edo horien okupazioari buruzkoak amaitutzat jotzeko eta, beraz, Udalak administrazio bidetik baratzeen jabetza berreskuratu ahal du; era berean, administrazio bidezko lur-utzarazpena berez erabaki eta gauzatu ahal du Toki Erakundeen Ondasunen Arautegiaren arabera.

*5. artikulua. Emakida emateko baldintzak, eskaerak aurkezteko epea eta emakida erabakiko duen organoa.*

Usurbilgo udalerrian erroldatutako edozein pertsonak egin ahalko du eskaera. Lehentasun taldea langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, gazteek eta konposatze komunitarioaren arduradunek osotuko dute.

Eskatzaileen eskaera zerrenda egingo da, eskaintza eskaera baino urriago balitz, lehentasun taldekoei emango zaie lehenik eta behin emakida, eta gainontzekoekin emakida zerrenda osatuko da zozketa bitartez.

Sexuen arteko aukera berdintasunaren printzipioari dagokionez, emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadin, zozketa bakoitzean, partzelen emakida ematerakoan emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna bermatuko da, hau da, gutxienez emakidako titularren %40a emakumezkoak izango dira ahal den neurrian.

Lehen aldiz eta emakida amaitutakoan baratzak esleitzeko epea Alkatetzak irekiko du. Epez kanpo aurkeztutako eskaerekin itxarote zerrenda osatuko da. Lehendik eratutako itxarote zerrendaren atzetik.

Edozein kasutan erregelamendu honen garapenean deialdi bakoitzerako alkateak onartzen dituen oinarriek zehaztutakoa jarraituko da.

Emakidadunen behin-behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda onartzeko organo eskuduna alkatea izango da.

CAPITULO II

REGULACION DE LAS AUTORIZACIONES PARA LA CONCESIÓN Y USO DE LAS HUERTAS MUNICIPALES

*Artículo 4.º Concesión del uso de huertas.*

1. Toda persona empadronada en el municipio de Usurbil tendrá derecho a ser usuaria de las huertas municipales a que se refiere el presente Reglamento.

2. Quien ya disponga de terreno de su propiedad o en arrendamiento en el municipio de Usurbil, no tendrá derecho a la concesión de ninguna huerta municipal.

3. Cada titular de concesión, sólo podrá serlo de una huerta como máximo.

4. Dos o más miembros de una misma unidad convivencial, se considerarán como una misma titularidad.

5. El uso de las huertas se concederá, en todo caso, a título de precario.

En consecuencia, el Ayuntamiento, podrá acordar, en cualquier momento, la revocación de la autorización de uso concedida, en cuyo caso, quien ostente la titularidad deberá cesar en el uso y actividades desarrolladas en el terreno cedido, a mero requerimiento de la Administración, y sin derecho a indemnización de ninguna clase, ni compensación económica por concepto alguno.

A este respecto, a la finalización del plazo de concesión, o a la resolución anticipada de la misma, si se produjera, la persona usuaria deberá devolver la huerta cedida al Ayuntamiento en debidas condiciones de uso, dejándola vacía y a su libre disposición, quedando el Ayuntamiento de Usurbil expresamente facultado para declarar por sí mismo la extinción de cualesquiera derechos de uso que existieran constituidos sobre las huertas cedidas, o relativos a la ocupación de las mismas, pudiendo, en consecuencia el Ayuntamiento, recuperar su posesión en vía administrativa, acordando y ejecutando por sí, el desahucio administrativo conforme a las normas contenidas en el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales.

*Artículo 5.º Requisitos para la concesión, plazo de presentación de solicitudes y órgano que resuelve la concesión.*

Podrá presentar la solicitud cualquier persona empadronada en el municipio de Usurbil. Tendran prioridad quienes acrediten encontrarse en condición de paro, jubilación o pensionista y quienes apoyen el compostaje comunitario.

Se realizará una lista de solicitantes, y si la demanda fuera superior a la disponibilidad de huertas, primero se hará la concesión a los solicitantes que pertenecen a los grupos prioritarios y con el resto se realizará una lista de concesión, todo ello mediante sorteo.

Con relación al principio de igualdad de trato entre la división sexual, con el objeto de lograr una representación equilibrada de mujeres y hombres, en cada sorteo, se garantizará la composición equilibrada entre mujeres y hombres a la hora de la concesión de las parcelas, es decir, como mínimo el 40% de los titulares de la concesión deberán ser mujeres en la medida de lo posible.

Una vez finalizada la concesión, será la Alcaldía quien, por primera vez, lleve a cabo la apertura del plazo de adjudicación. Con las solicitudes presentadas fuera de plazo, se realizará una lista de espera posterior a la lista previa existente.

En todo caso, se deberá seguir el procedimiento indicado en las bases aprobadas por Alcaldia para cada convocatoria.

La Alcaldía será el órgano competente para la aprobación del listado provisional y definitivo de concesionarios.

*6. artikulua. Baratzeen erabilera.*

1. Erabiltzaileak eman zaion lursaila baratze gisa soilik erabil dezake. Lortzen diren produktuak bakar-bakarrik etxeko kontsumorako izango dira.

2. Erabiltzaileak, baratzean sortutako biohondakina konpostatzera behartuta dago, horretarako udalak udal baratzen ondoan eraikiko dituen azpiegiturak erabiliz. Honetaz gain, erabiltzaileen etxeetako hondakin organikoak konposta ditzake baratzetako konpost gunean, eta erabiltzaileak eskatzen badu, ez zaio atez ateko zerbitzuaren bitartez hondakin organikorik jasoko bere etxean eta dagokion hobaria aplikatuko zaio bere hondakin tasan.

3. Ezin da zuhaitz eta zuhaixkarik landatu.

4. Ezingo da, inolaz ere, inongo animaliarik eduki eta gorde, hazi eta ustiatu baratzeetan.

5. Erabat debekatuta dago txabolarik edo bestelako eraikinik instalatzea baratzeetan. Horrez gain, debekatuta dago paisaia hondatzen duen elementurik jartzea, besteak beste, bidoiak, gordailu osagarriak, txapak, bereizgailuak, parrillak, negutegiak edo antzekoak.

6. Udalak izendatutako langileek, Udaltzainek edo lan horretarako izendatutako pertsonak, aldian-aldian, baratzeen erabilera ikuskatuko dute eta horretarako ez da beharrezkoa izango erabiltzaileari aldez aurretik abisatzea.

7. Emakidak irauten duen bitartean, aurreko paragrafoan aipatutako ikuskapenetan baratze edo lursailen baten egoerari buruzko txostena bitan txarra edo aurkakoa bada, erabilera baliogabetu eta baja emango zaio.

*7. artikulua. Elkartea eratzea.*

Emakidadunak behartuta daude elkarte bat eratzera, baratzeen eguneroko kudeaketa egiteko. Elkartearen helburua proiektuaren funtzionamendu egokia zaintzea izango da, gutxieneko mantenua egitea eta ordezkari bat/batzuk izendatzea Usurbilgo Udaleko kudeaketaren arduradunarekin zuzeneko harremana eduki dezan/dezaten.

*8. artikulua. Mugak eta sarbideak bere horretan mantentzea.*

1. Udalak baratzeari jarritako mugak errespetatuko dira denbora guztian.

2. Baratzeetako lur-zatiak zabalik egongo dira eta ezingo da itxi, tartean hesola edo beste elementu batzuk jarriz.

3. Elkartea arduratuko da baratzeko sarbideak egoki mantentzeaz eta horretarako behar diren mantentze-lanak egingo ditu aldian-aldian.

*9. artikulua. Erabiltzaileek erabilerak besterentzea.*

Lursailen erabilera ezin dakioke inolaz ere beste inori laga edo besterendu; halaber, debekatuta dago lursailak, osorik edo zati bat, beste pertsona bati okupatzen edo erabiltzen uztea, aldi baterako bada ere. Betebehar horiek ez badira betetzen, emakida automatikoki amaituko da eta Udalak lursailaren jabetza berreskuratzeko ahalmena izango du.

Horiek horrela, erabiltzaileak baratzea erabiltzen jarraitu nahi ez badu, Udalaren esku utzi beharko du.

*10. artikulua. Aprobetxamendu-epea.*

Lurraren aprobetxamendua eta/edo erabilera urtebeterako emango da, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte, eta gehienez ere 5 urtez luzatu ahal izango da.

Emakida bera edo geroko luzapenak bukatu baino hilabete lehenago aldeetako batek ezer adierazten ez badu, luzapenak berez egingo dira.

*Artículo 6.º Uso de las huertas.*

1.a. La persona usuaria sólo podrá utilizar o destinar el terreno que se concede, para uso de huerta. Los productos obtenidos deberán ser exclusivamente para el consumo doméstico.

2. El usuario está obligado al compostaje del biorresiduo generado en la huerta, utilizando para ello la infraestructura que habilitará para dicho fin el Ayuntamiento. Además, se podrá compostar en el área de compostaje de la huerta, el residuo organico generado en la vivienda del usuario, y si el usuarió así lo solicita, no se le recogerá el residuo orgánico de su vivienda aplicándosele una bonificación de la tasa de recogida de residuos.

3. No se permite la plantación de árboles ni de arbustos.

4. En ningún momento se permitirá la estancia y guarda, cría o explotación de cualquier animal en las huertas.

5. Queda expresamente prohibida la instalación de chabolas o cualquier tipo de construcción en las huertas. Tampoco está permitida la instalación de elementos que deterioren el paisaje, tales como bidones, depósitos complementarios, chapas, separadores, parrillas, invernaderos o similares.

6. El personal designado por el Ayuntamiento, la policía municipal o bien la persona o entidad designada a tal fin, de forma regular vigilará el uso que se realice de las huertas, no siendo necesario el aviso previo a la persona usuaria.

7.-Mientras dure la concesión, si en 2 visitas de inspección se concluye que el uso es inadecuado o desfavorable, se procederá a inhabilitar para el uso de la misma y darle de baja como usuario de la huerta.

*Artículo 7.º Creación de asociación.*

Los concesionarios están obligados a crear una asociación, para la gestión diaria de las huertas. El objetivo de la asociación será: Salvaguardar el funcionamiento correcto del proyecto, realizar un mínimo mantenimiento y nombrar la persona o personas representantes, para que tengan relación directa con el responsable de gestión del Ayuntamiento de Usurbil.

*Artículo 8.º Mantenimiento de límites y accesos.*

1. En todo momento se respetarán los límites de huerta establecidos por el Ayuntamiento.

2. Las parcelas destinadas a huertas permanecerán abiertas sin que se permita cerrarlas entre ellas con estacas u otros elementos.

3. La persona usuaria será responsable del correcto estado de accesos a la huerta, debiendo llevar a cabo el mantenimiento regular que el mismo requiera.

*Artículo 9.º Transferencias de titularidades.*

El uso de los terrenos no podrá transferirse o cederse a un tercero, bajo ningún concepto. Asimismo, queda prohibido permitir a otra persona la ocupación o utilización total o parcial de los terrenos, ni siquiera provisionalmente. El incumplimiento de estas obligaciones determinará la extinción automática de la concesión, quedando facultado el Ayuntamiento para recuperar por sí mismo la posesión del terreno.

A tal efecto, y en caso de no interesarle o no querer continuar la persona usuaria con el aprovechamiento de la huerta, la dejará a disposición del Ayuntamiento.

*Artículo 10.º Plazo de aprovechamiento.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, hasta el 31 de diciembre de cada año, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de 5 años.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de concesión o de sus sucesivas prórrogas.

*11. artikulua. Fidantza.*

Udalak 30 euroko fidantza jartzeko eskatuko die emakidadunei, Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrei erantzuteko. Udalak horrela erabakiko balu erabilera lagapenari dagokion kanona ezarri ahal izango luke. Betebeharrak ez betetzea, eta arauak urratzea nahikoa izango da, baratza kendu eta fidantza galtzeko.

*12. artikulua. Guztionak diren instalazioen erabilera eta mantentze-lanak.*

1. Emakidaren titularrek Udalarekin hitz egiteko elkarteko solaskide bat/batzuk izendatuko dute.

2. Era berean, instalazioen funtzionamenduaren, txukuntasunaren eta segurtasunaren erantzule solidarioak izango dira.

3. Debekatuta dago instalazioen barruan (baratze, bide publiko, zerbitzuen zonaldea etab.) lau gurpileko ibilgailuak aparkatzea edo sartzea, mantentze lanetarako udalak zehaztutako ibilgailuak izan ezik.

*13. artikulua. Ureztatzeko uraren erabilera.*

Ureztatzeko, udalak ezarritako ura lortzeko puntu eta sistemaz baliatuko dira.

Ur kontsumoek dagozkien ordainarazpenak sortuko dira, eta erabiltzaile bakoitzak dagokion proportzioan ordainduko ditu.

*14. artikulua. Baratzezaintza ekologikoan oinarritua.*

1. Udal baratzak, nekazaritza ekologikoan oinarrituko dira, horretarako, emakidaren titularrak, behartuta egongo dira, partzela eskuratu baino lehen, Usurbilgo Udalak antolatutako nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza ikastaro bat egitera, partzelak era egokian ustiatuko direla bermatzeko.

2. Baratzeen erabiltzaile guztiek nekazaritza ekologikoari buruzko CEE 2.092/1991 Erregelamenduko printzipioak jarraitu beharko dituzte, eta printzipio horiek ez jarraitzea, emakida eteteko nahikoa arrazoi izango da.

3.-Nekazaritza ekologikoaren ikastaroetan soilik onartzen diren tratamenduak erabili ahal izango dira.

*15. artikulua. Guztionak diren zonen ikuskapena.*

Instalazio guztiak, pertsona bakarrak zein taldeka erabiltzekoak, ikuskatzera joan daitezke, edozein momentutan, horretarako izendatutako Udal langileak, eta helburua araudia behar bezala betearaztea da. Hortaz, Udalak ikuskapena egiteko eskumena izango du eta erabiltzaileak ezingo du, inolaz ere, ikuskapena galarazi.

## III. KAPITULUA

## ERANTZUNKIZUNAK

*16. artikulua. Kalteak eta galerak ordaintzea.*

Udal baratzeetan edo horiei erantsitako instalazioetan kalteak eragiten dituzten pertsona guztiek ordaindu egin beharko dituzte eta bidezko diren isunak ere jarriko zaizkie.

Leku edo instalazio horien kalte-galeren zenbatekoa Usurbilgo Udalak zehaztuko du eta balorazioak salatutakoari helaraziko zaizkio, bere balorazioa egin dezan edo bidezko alegazioak aurkez ditzan.

*Artículo 11.º Fianza.*

El Ayuntamiento exigirá a quienes resulten adjudicatarios de la concesión el depósito de una fianza de 30 euros, para responder del cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Reglamento. Caso de que el Ayuntamiento así lo acordara, podrá establecer el canon correspondiente a la concesión de uso. El incumplimiento de las obligaciones establecidos, y la infracción de la normativa será razón suficiente para anular el uso de la huerta y perder la fianza.

*Artículo 12.º Uso y mantenimiento de las instalaciones comunes.*

1. Las personas titulares de la concesión designarán uno o varios interlocutores ante el Ayuntamiento.

2. Asimismo serán responsables de forma solidaria del mantenimiento y correcto estado de operatividad, decoro y seguridad de las instalaciones.

3. Se prohíbe el estacionamiento o acceso de vehículos de cuatro ruedas dentro de todas las instalaciones (huertas, caminos públicos, zona de servicios, etc.), excepto los vehículos de mantenimiento.

*Artículo 13.º Uso del agua para riego.*

El Ayuntamiento establecerá los puntos o sistemas de obtención de agua para riego.

Se emitirán las facturas correspondientes de consumo de agua, cada concesionario pagará la factura de forma proporcional.

*Artículo 14.º Basado en la horticultura ecológica.*

1. Las huertas municipales estarán basadas en la horticultura ecológica, para ello, las personas titulares de la concesión estarán obligadas, antes de la obtención de la parcela, a tomar parte en los cursos de aprendizaje sobre la horticultura ecológica organizada por el Ayuntamiento de Usurbil, con el objeto de garantizar que las parcelas se explotarán de forma adecuada.

2. Todos los usuarios de las huertas deberán de seguir los principios del Reglamento CEE 2092/1991 sobre horticultura ecológica, y el incumplimiento de estos principios determinará la extinción automática de la concesión.

3. Solo se podrán aplicar los tratamientos aceptados en el citado curso de aprendizaje.

*Artículo 15.º Inspecciones en las zonas comunes.*

Todas las instalaciones, tanto de uso individual como colectivo, estarán sujetas a inspección, en cualquier momento, por personal municipal designado al efecto, a fin de comprobar el correcto cumplimiento de la normativa, quedando el Ayuntamiento expresamente facultado para ello, sin que la persona usuaria pueda oponerse en ningún caso.

## CAPITULO III

## RESPONSABILIDADES.

*Artículo 16.º Indemnización de daños y perjuicios.*

Toda persona que cause daños en las huertas municipales o instalaciones anexas a las mismas deberá indemnizarlos con independencia de las sanciones que resultaren procedentes.

El señalamiento de la cuantía de los daños y perjuicios causados en tales lugares o instalaciones corresponde al Ayuntamiento de Usurbil. La valoración o valoraciones serán trasladadas al denunciado para que realice la suya o presente las alegaciones que considere oportunas.

Zehapen-espedienteari bukaera emango dion ebazpenean egingo da kalte-ordainen akordioa eta eragindako kalte eta galerak adieraziko ditu.

Kalte-galerak ordaintzeko erabakiak legez ezarritako epeetan betearazi behar dira eta errekurtsoa aurkeztu arren, aurka egindako egintza gauzatu egingo da eta ez da etengo, baldin eta organo eskudunak antolamendu juridikoaren arabera kontrakoa agintzen ez badu.

Kalte-ordaina adierazitako epearen barruan ordaintzen ez bada, Udalak premiamendu bidezko ordainarazpenari ekingo dio.

Era berean, hirugarrenei eragindako kalte edo galerak ere ordaindu egin beharko ditu.

*17. artikulua. Kalteak konpontzea presazko egoeretan.*

Segurtasunagatik edo udal organo eskudunaren ebazpenean behar bezala frogatutako arrazoiengatik, kalte eta galeren konponketa ezin bada atzeratu, berehala konpondu ahal izango dira eta horren ordaina eskatuko zaio kaltearen eragileari, aldez aurretik, aurreko artikuluetan aipaturiko zehapen-espedientea ireki edo jurisdikzio arruntera jo ondoren.

*18. artikulua. Beste erantzukizun batzuk.*

Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, kalteak eragin dituzten egintzak delitu edo falta izan badaitezke, espedientea zigor arloko jurisdikziora igorriko da eta konpentsazioa eskatzeko espediente administratiboen izapidetzea eta ebazpena etenda gelditmuko dira, kausa artxibatzea erabaki edo epai irmoa hartzen ez den bitartean. Halaber, diligentzia judizialetan, baldin eta diligentziak hasten badira, tokiko administrazioa alderdi gisa eratu behar da dagokion kalte-galeren ordaina jaso ahal izateko, horretarako «Kalteak eta galerak ordaintzea» 15. artikuluan aipatu den ebaluazioa aurkeztuz.

## IV. KAPITULUA

## ZEHAPENAK

*19. artikulua. Zehapenak.*

Emakida baliogabetu egin dakiekeela ohartarazi eta/edo baliogabetu daiteke, ondorengo gertakariengatik:

A. Emakida baliogabetu daitekeela ohartaraztea, arrazoi hauek direla-eta:

— Baratzearen instalazioak eta bere sarbideak ez mantentzea.

— Baratzea ixtea.

— Ibilgailuak baimendu gabeko tokietan aparkatzea.

— Baratzezaintza ekologikorako Udalak ezarritako betebeharrak ez betetzea.

— Baimendu gabeko elementuak instalatzea, besteak beste, txabolak, negutegiak, txapak, bidoiak, gordailuak, parrillak e.a.

— Ibilgailu pribatuekin udal baratzeen esparru komunitariora sartzea.

B. Emakida baliogabetzea, arrazoi hauek direla-eta:

— Baratzekoak ez diren landaketak egitea, edo landareak landatu eta/edo mantentzea baimendu gabeko lekuetan.

— Baratzeko udal ondasunak kaltetu edo lapurtzea.

El acuerdo de indemnización que contendrá el señalamiento de los daños y perjuicios causados se realizará en la resolución que ponga fin al expediente sancionador.

Los acuerdos de indemnización de daños y perjuicios, serán ejecutivos en los plazos legalmente fijados, sin que la interposición del recurso suspenda la ejecución del acto impugnado, salvo que, conforme con el ordenamiento jurídico, así lo ordene el órgano competente.

En caso de impago de la indemnización señalada dentro del plazo establecido, el Ayuntamiento procederá a su exacción por la vía de apremio.

Asimismo deberá responder de cualquier daño o perjuicio que pudiera ocasionar a terceras personas.

*Artículo 17.º Reparación de daños en caso de urgencia.*

En los supuestos en los que, por motivos de seguridad o cualesquiera otros debidamente acreditados en resolución del órgano municipal competente, se haga inaplazable la reparación de daños y perjuicios, podrá procederse a su inmediata restitución y a la exigencia posterior del importe correspondiente al causante de los mismos, previa incoación del expediente sancionador a que se refieren los artículos precedentes o acudiendo a la jurisdicción ordinaria.

*Artículo 18.º Otras responsabilidades.*

Sin perjuicio de lo previsto en los artículos anteriores, cuando los hechos como consecuencia de los cuales se hubiesen derivado los daños pudieran ser constitutivos de delito o falta, se remitirá el expediente a la jurisdicción penal, dejando en suspenso la tramitación y resolución de los correspondientes expedientes administrativos de exigencia de resarcimiento, en tanto no se acuerde el sobreseimiento de la causa o se dicte sentencia firme, debiendo constituirse como parte la administración local en las diligencias judiciales, caso de que se incoasen, al objeto de obtener el resarcimiento de los daños y perjuicios a que hubiere lugar mediante la presentación de la evaluación a que se refiere el artículo 15 anterior, relativo a la «indemnización de daños y perjuicios».

## CAPITULO IV

## SANCIONES

*Artículo 19.º Sanciones.*

Serán objeto de apercibimiento y/o revocación de la concesión los siguientes hechos:

A. Apercibimiento de posible revocación:

— No proceder al mantenimiento de las instalaciones propias de su huerta, así como de sus accesos.

— Efectuar el cierre de la huerta.

— Llevar a cabo el estacionamiento de vehículos en lugares no permitidos.

— Incumplir los requisitos establecidos por el Ayuntamiento, para llevar a cabo prácticas de horticultura ecológica.

— Instalar elementos no permitidos, como chabolas, invernaderos, chapas, bidones, depósitos, parrillas etc.

— El entrar con vehículos privados en el ámbito comunitario de las huertas municipales.

B. Revocación de la concesión por las siguientes causas:

— Llevar a cabo cultivos no hortícolas, o la plantación y/o mantenimiento de plantas en lugares no permitidos.

— Dañar o sustraer los bienes municipales inherentes a la huerta.

— Baratze bakoitzari jarritako mugak aldatzea.

— Animaliak eduki, ustiatu edo haztea.

— Baratzearen erabilera besterendu edo lagatzea, Udalaren baimenik gabe.

— Baratzearen eta bere instalazioen ikuskapena egiten ez uztea udal langileei.

— Udal ondasunak lapurtzea edo guztionak diren instalazioetan kalteak edo hondaketak eragitea.

— Landare psikotropikoak, kalamua, horien antzeko landareak eta espezie inbaditzaileak jartzea edo landatzea.

— Emakidak irauten duen bitartean bi ikuskapen-txosten txar edukitzea.

— Baratzean lortutako produktuak merkaturatzea.

— Laga zaion lur-zatia epearen barruan ez itzultzea edo ez hustea, baldin eta Udalak emakida baliogabetzea erabakitzen badu.

— Edozein ekintza egin eta lagapena baliogabetu dakiokeela ohartarazita ere, ekintza horiek berriro ere egitea.

*20. artikulua. Prozedura administratiboa.*

1. Udal organo eskudunei dagokie emakida baliogabetu dakiekeela, edo hala badagokio, emakida behin betiko baliogabetuko zaiela ohartarazteko prozedura hastea, instruitzea eta erabakitzea.

2. Udaltzaingoak edo zeregin horretarako izendatutako zaindari-ikuskatzaileek egiaztatzen dituzten ekintzek froga-balioa izango dute, baldin eta salaketa-agirietan edo bestelako agiri publikoren batean bidezko lege betekizunak betez formalizatzen badira. Hala ere, administratuek ere beren eskubide eta interesen aldeko frogak aurkeztu ahal izango dituzte.

## V. KAPITULUA

## EMAKIDA BUKATZEA

*21. artikulua. Emakida bukatzeko arrazoiak.*

Aurreko artikuluetan adierazitako adibideak gorabehera, emakida bukatzeko arrazoi garbiak izango dira honakoak:

1. Emakidaren beraren edo ondorengo luzapenen epea bukatzea

2. Erabiltzaileak berak baja eskatzea.

3. Titularraren heriotza edo elbarritasuna.

4. Usurbilgo Herritarren Udal Erroldan baja ematea.

5. Udal jardueretarako edo jendearen intereseko arrazoietarako Udalak lursaila behar izatea.

6. Halaber, Erregelamendu honetan ezarritako baldintza eta/edo betebeharren bat bete ezean, erabiltzaileek laga zaien lursailaren jabetza eta gozamenerako eskubidea galduko dute eta Udalak erabilera-emakida baliogabetu ahal izango du 19. artikuluaren B) idatz-zatian ezarritako eran. Emakida bukatzeak izango dituen ondorioak indarrean dauden araudietan eta Erregelamendu honetako 4. artikuluan ezarritakoak izango dira.

Usurbil, 2012ko azaroaren 16a.—Mertxe Aizpurua Arzallus, Alkatea.

(3825) (10853)

— Alterar los límites establecidos para cada una de las huertas.

— Poseer o realizar acciones de explotación o cría de animales.

— Transferir o ceder el uso de la huerta sin autorización municipal.

— Impedir la libre inspección de la huerta y sus instalaciones por parte de personal municipal.

— Sustraer bienes municipales o causar daños o desperfectos en las instalaciones comunes.

— Establecer o realizar labores de cultivo de plantas psicotrópicas, cannabis, y similares y especies invasoras.

— Poseer informe desfavorable de inspección por dos veces durante la concesión.

— Comercializar los productos obtenidos en la huerta.

— No restituir, ni desalojar, en plazo, el terreno cedido, caso de acordarse por el Ayuntamiento la revocación de la concesión.

— La reiteración de cualquier hecho objeto de apercibimiento anterior.

*Artículo 20.º Procedimiento administrativo.*

1. Corresponde a los órganos municipales competentes la iniciación, instrucción y resolución de los procedimientos para apercibir de la revocación la concesión o en su caso, de la revocación definitiva.

2. Los hechos constatados por la policía municipal o los vigilantes-inspectores designados al efecto, que se formalicen en los documentos de denuncia o en otro documento público, observando los requisitos legales pertinentes, tendrán valor probatorio sin perjuicio de las pruebas que en defensa de los respectivos derechos o intereses puedan señalar o aportar los propios administrados.

## CAPITULO V

## EXTINCIÓN DE LA CONCESION

*Artículo 21.º Causas de resolución de la concesión.*

Sin perjuicio de los supuestos contemplados en los artículos precedentes, constituirán causas expresas de resolución de la concesión, las siguientes:

1. Transcurso del plazo de la concesión o de sus sucesivas prórrogas.

2. Baja voluntaria a petición del propio usuario/a.

3. Fallecimiento o invalidez de la persona titular.

4. Causar baja en el Padrón Municipal de Habitantes de Usurbil.

5. Necesidad de uso por parte del Ayuntamiento para actuaciones municipales o por otras razones de interés público.

6. Del mismo modo, el incumplimiento de cualquiera de las condiciones y/u obligaciones establecidas en el presente Reglamento por parte de las personas usuarias, supondrá la pérdida de su derecho a continuar en la posesión y disfrute del terreno cedido, y facultará al Ayuntamiento para revocar la cesión de uso concedida, en la forma establecida en el apartado B) del artículo 18. Los efectos de la extinción de la concesión serán los establecidos en la legislación vigente y en el artículo 4.º del presente Reglamento.

Usurbil, a 16 noviembre del 2012.—La Alcalde, Mertxe Aizpurua Arzallus.

(3825) (10853)